

FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan, gure enpresak aurrera egiteko beharrezkoak diren eta gutako bakoitzak egin behar dituen lanak eta betebeharrak adieraziko ditugu.



Lehenik eta behin, gure saltzaileak enpatikoak izan beharra dute, bezero bakoitzak bere zailtasun, arazo eta behar ezberdinak dituelako. Guk osatuko dugu saltzaile taldea, horretarako, gure %100eko arreta jarriko dugu haiengan, hala ere, gutako bakoitzak enpresaren barruan bere zereginak eta betebeharrak izango ditu.

Izarok marketin baliabideak eramango ditu, ikusizko elementu deigarriak dituzten kartelak eta gauza ezberdinak eginez bezero berriak erakartzeko eta dauden bezeroei produktu, eskaintza berezi, ekitaldi edo azoka komertzial berriei buruzko informazio emateko, bai sare sozialetan eta baita herrietan zehar ere.

Izaro eta Aimarren artean bezeroekin erlazioa izango dute, haien zalantzak argituz jendearekin komunikatzea eta hitz egitea erraza egiten zaielako.

Kontuak Julen eta Aimarren artean eramango dituzte, ondo moldatzen direlako diru kontuekin, garrantzitsua delako dugun dirua ondo administratuta izatea eta behar duguna kalkulatzeko.

Julenek, aukeratutako kirolekin behar den materiala gure hornitzaileei eskatzeaz arduratuko da, kirolen inguruan interesa duelako eta gai hauek gustatzen zaizkielako.

Henry bezeroen balorazioak eta iritziak jasotzeaz arduratuko da gure enpresa hobetzen joan ahal izateko, horrez gain, online salmenten kudeaketa ere eramango du.

Bezeroek produktua erosten dutenean, hilabete igaro ondoren, inkesta bat bidaliko diegu eskaintzen dugunaren kalitateari buruz iritzia eman dezaten, eta hori denon artean kudeatuko dugu, txandaka.